



## ❖ ERRONDA Urte Zaharra agurtzeko, erronda bihar

Ohitura Zaharrak abesbatzak Urte Zaharretako erronda egingo du bihar, Kaxkoan barenena. Bertsotan agurtuko dute urtea. Arratsaldeko 17:15etan abiatuko dira Plazatik. ||

## ❖ FARMAZIAK Etxebeste farmaziak egingo ditu gaueko guardiak

2012ko gaueko guardiak Etxebeste farmaziak egingo ditu (Elkano kalea, 2). Igan-detik aurrera izango da hori. ||

## ◆ KIROLDEGIA Kiroldegia itxita, bihar eta etzi

Gabonak direla eta, Kiroldegia itxita egongo da larunbatean eta igandean. ||

## ❖ ZIKUÑAGA Auzo elkarteko kuota ordaintzeko, azken egunak

Zikuñagako Ama Auzo Elkartetik gogorarazi dute, urtea amaitzean dela eta 2011ko kuota eguneratzeko epea bukatzen ari dela. Izen-abizenekin batera, portalaren eta pisuaren zenbakiak jartzeko ere eskatu dute. ||

## ❖ UR MIA Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa, gaur

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak ari dira izaten, herriz herri, eta Ereñotzun gaur jokatu da. Ur Mia elkartean, 22:30etatik aurrera izango da. Izen ematea momentuan egingo da, 20 euroan. ||

## ❖ ZINEA Emanaldirik, ez

Asteburu honetan, ez da zine emanaldirik izango Biterin. ||

## 'EGIN DEZAGUN BIDEA' HERRI BILGUNEAN

# Lau kalejirak bat egingo dute Plaza Berrin, gaur, presoan eskubideen alde

Hernaniko lau auzotatik abiatuko dira kalejirak, 20:00etan: Zikuñaga, Portu, Antziola eta Etxeberri. Bihar Martuteneko espexera joango dira Hernanitik. Zita: 10:30etan Zinkoenean.

PLAZA Berrin juntatuko dira gaur, Hernaniko lau auzotatik abiatutako martxak, preso eta iheslarien eskubideen alde. 20:00etan abiatuko dira martxak, eta 20:30etan ekitaldi berezia egingo dute Plaza Berrin. Hernaniarrei dei egin diete *Egin dezagun bidea* bilgunetik, animatu daitezela kalejiran parte har-

Urtarrilaren 7an Bilboko manifestaziora joateko autobusa aterako da Martindegitik ere.

tzera. Zitatik, 20:00etan, puntu hauetatik: Zikuñagako rotonda, Portuko plaza, An-

tziolako parke ondoko rotonda eta Etxeberriko bolatokia.

**Martutenera joateko**  
Horrez gain, bihar urteroko martxa izango da Martuteneko espexera. Hernanitik joateko, 10:30etan egin dute zita Zinkoenean; bestela, 11:00etan Astigarragan. Handik joango dira Martutenera.

**Bilbora autobusak**  
Bilbon *Herri Mobilizazio Orokorra* izango da urtarrilaren 7an, presoan eskubideen alde: *Kolosala izango da!*. Hernanitik autobusak jarriko dituzte, eta izena emateko zerrendak daude Txilin, Oindin eta Garinen. Martindegitik ere aterako da autobusa; apuntatzeko: 666 903 624. ||

## KARABELGO BIZILAGUNAK

# «Espaloi txukun bat behar dugu, umeak Karabeldik Elizatxora eramateko»

Karabelgo bizilagunek Udalari eskatu diote, espaloi berria egiteko, Portu eta Karabelgo errepide bazterrean. Adierazi dute, apeadero-ko espaloia oso arriskutsua dela.

KARABELEN bizi diren guraso askok umeak Elizatxo ikastolara eramaten dituzte. Prentsa oharrean salatu dutenez, umeak oinez eramateko oso bide arriskutsua dago, apeadero-ko ondokotik joan behar izaten dutelako. Horregatik, espaloi bat egiteko eskatu diote Udalari, Portu eta Karabel lotzen dituen errepide ondokotik; ez apeadero-ko.

«Eskaera lehengo agintaldian egin genion Udalari, eta oraingoan ere bai. Ez dugu erantzunik jaso. Guk nahi dugu, espaloi txukun bat Portu eta Karabel lotzen dituen errepide ondoan. Apeadero-koa, oso arriskutsua da.» ||



Karabelgo bizilagunak Apeadero ondoko espaloitik joaten dira Elizatxo ikastolara.

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia  
beti bikain

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089  
Elkano 12 - Tel.: 943 553142  
Orkolaga 19 - Tel.: 617 915 014  
20120 Hernani

sare  
Bitxigintza

A

Asun Esnal  
Tlf.- 636 627 462  
Narrika kalea 23  
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Denda ireki berria

**GABONETANERE  
EGINDEZAGUNBIDEA**

OSTIRALA 30  
AZKEN OSTIRALA

20:00ETAN PORTU, ZIKUÑAGA,  
ETXEBERRI ETA ANTZIOLATIK  
ZUTABEAK ATERAKO DIRA PLAZA BERRIRAINO.  
ONDOREN HERRI ANTZERKIA.

☎ TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622  
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
 ☩ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Aguado** ASTIGARRAGA - Nagusia, 21 - 943 550327 ● **Gauz:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

**EGURALDIA**  
**GAUR** Zerua lainotuta egongo da eta euria egiteko arriskua ere izango da. Giro freskoarekin jarraituko dugu eta gainera, haizeak indartsu joko du. Min.7° / Max.13°.  
**BIHAR** Urteari lainoekin, baina lehorretik emango diogu amaiera. Haizeak mendebal/hegomendebaldera egingo du eta tenperatura zertxobait igokoa da. Min.9° / Max.14°.  
 (euskaime)

## PRENTSAURREKOA - JOXAN REKONDO:



Iñaki Barrio, Iñaki Arratibel eta Joxan Rekondo, atzoko prentsaurrekoan.

# «Froga faltan, epaileak bertan behera utzi du nire kontrako akusazioa»

Joxan Rekondo Hernaniko Alkate ohiak prentsaurrekoa eman zuen atzo, Hamaikabateko Iñaki Barrio eta Iñaki Arratibekin batera.

JOXAN Rekondo Hernaniko Alkate ohiak prentsaurrean salatu zuen, Txantxillako etxe tasatuen zerrendak direla-eta bere kontra jarritako akusazioa funtsik gabea zela, eta horregatik utzi duela epaileak bertan behera.

Hernaniko Udalak joan den legegintzaldian akusazioa jarri zuen Joxan Rekondoren kontra. Akusazio horretan salatzen zen, Txantxillako etxebizitza tasatuak zeini emango zitzaizkien publiko egin zuela Rekondok, Udaletxeko web

gunearen bidez. Bi urteren ondoren, epaileak itxi egin du kasua, «froga faltagatik». Rekondo: «Ordenagailuko IPak bakarrik presentatu zituzten froga gisan, eta ezin izan dute ezer demostratu. Zer demostratuko dute ba? Nik ez nuen informazio hori inoiz eskuartean izan, eta ez dut inoiz zabaldu. Orduko Udal Gobernuak gestio penagarria egin zuen Txantxillan, eta hori ezkutatu nahi izan zuen, nire kontrako akusazio hori publiko eginez.

Eta bide batez, foroa itxi zuten, hain ondo funtzionatzen zuena».

«Diligentziak aurkeztu ditugu bi pertsonen kontra» Hamaikabat alderdiko Iñaki Arratibek adierazi zuen, denuntzia sartu diela foroaren arduradun zen teknikariari, eta Alkateari. «Ordenagailuko IPak ezin dira inoren eskutan jarri, epaile batek agintzen ez badu. Gainera, Alkateak publiko egin zituen, Batzorde batean». II

## PALETA GOMA - HIRU FINAL HERNANIN



# Bosgarren aldiz, Maider Mendizabal!

Emakumea Pilotari Txapelketa irabazi du, Mirari Etxegiarekin batera.

HERNANIN Emakumea Pilotari Txapelketako finalak jokatu ziren joan den astean, eta Maider Mendizabalek irabazi zuen lehenengo mailan, Mirari Etxegiarekin batera. Bosgarren aldiz irabazi du Mendizabalek txapelketa hau; kasu honetan, Redondo eta Arozenaren kontra, 17-30.

**Bigarren mailan, Ugalde** Arriolak eta Ugaldek irabazi zuten bigarren mailako finala, erraz, Tijero eta Beldarraini 17-30 irabazita. Ugaldek eta Arriolak asko hobetu dute maila, txapelketa hasi denetik, eta gainera pasa dituzte bi aurkariak 38 minutuko partiduan.

**Jubeniletan, Goikoetxea eta Arrieta** Elkarteko arteko finala ere jokatu zen Hernanin, jubeni mailakoa, eta Goikoetxea eta Arrietak irabazi zuten, 30-21 Pagola eta Huiziren kontra. Bi bikote hernaniar iritsi dira finalera, garbi geratu da, hernaniarren nagusitasuna. II

### ERRUGBIA

#### Oraindik bada egutegiak eskuratzeko aukera

Urte berria gainean da eta egutegi baten beharrean denak, aukera du oraindik errugbi elkarteko egutegia erosteko. Herriko hainbat taberna eta komertziotan daude eskuragai, 5 euroan. Ale gutxi batzuk geratzen dira eta elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete erosi duten guztiei. II

### ZUMITZA TABERNA

#### DJ rockKaiet Urte Zahar gauean, Zumitzan

Dj rockKaiet musika jartzen ariko da bihar, Zumitza tabernan: rockabilly, rock 'n' roll, rhythm 'n' blues, soul, 70's funk, deep funk, disco, boogaloo, grooves... Gaueko 01:00etatik aurrera izango da. II

### ATLETISMO TALDEA

#### Loteria puxka bat, atletismo taldean

Atletismo taldeak Gabonetako loteria atera du urtero bezala, eta aurten sari bat tokatu da, jakinarazi dutenez. Astearteetan pasa behar da kobratzera, 18:30etatik 20:00etara. II

### DORI KAFETEGIA

#### Mus Txapelketa berezia, gaur

Dori kafetegian Mus Txapelketa berezia antolatu dute gaur, gaueko 23:00etatik aurrera. Bikote bakoitzak ordaindu beharrekoa: 24 euro. Izena, bertan eman behar da. II

### ARGAZKILARITZA

#### Nagore Legarretaren argazkiak, Kitton

Nagore Legarreta argazkilaria hemaniarrak erakusketa jarri du Kitto tabernan. Argazkiak, kamara estenoepikarekin aterata daude. Urtarrila erdialdera arte izango da erakusketa. Horrez gain, argazki horiek eta gehiago biltzen dituen liburua argitaratu du Legarretak, *Edipotoa* izeneko eta, besteak beste, Kitton bertan salgai dago, 12 euroan. II

### BERRIAK ELKARTEA

#### Berriak Txartelarekin lortutako puntuak otsaila aurretik trukatu behar dira

Berriak Elkarteak jakinazi duenez, Berriak Txartelarekin puntuak pilatzen joateko aukera izango da urtarrilaren 30era arte, baina puntuak, urtarrilaren 31 baino lehen trukatu behar dira. Izan ere, otsailetik aurrera, egitasmo berria jarriko dute martxan. Horrez gain, gogorarazi dute, txartelarekin, urte osoan zehar deskontuak izaten direla elkarteko kide diren dendetan, Karabelgo gasolindegian (%2) eta txekeekin trukatzeko puntuak lortzen direla (400 puntu pilatuta, 10 euroko txekea). II

### IRAGARKI MERKEAK

**Alokairuko pisu bila nabil.** Mutil bat naiz, arduratsua, lana eta abalarekin, 500-600 € ordaintzeko prest. Deitu: 618 027 897

**Pixua salgai,** Mañe y Flaquer kalean, 5. solairua kalefakzioarekin. 250.000 €. Deitu: 679 501 384

**Pixua alokatzen dut,** Kardaberaz kalean. 650 euro, kontratuarekin. Deitu: 653 714 946

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA.** Fotodepilazioa, eguberritako prezio bereziak 2X1.

Beharpenak aurpegi tratamenduetan. Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. **Atzieta 2, behea.** Tel. 943 55 32 78.

**Alicia C.C.:** Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia...** Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)